


# Zer egin lehendabiziko klase-egunetan landa eskola batean, eta zer ez.

José Luis Murillo García

27 de noviembre de 2023



Ikasgela bateko lehen eskola-egunak partekatutako bizitzaren hasiera dira. Eskola humanista, bizia eta aktiboaren ikuspegitik, garrantzitsua da lehen egun horietan elkarbizitzarako eta harreman afektiboetarako giroari ekitea, ikasturte osoan zehar ikasgela horren funtzionamenduan eta, batez ere, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien ongizatean eragina izango baitu horrek.

Gratu anitzeko landa-ikastalde batean askoz errazagoa da klima horri ekitea, haren aniztasuna, ratio txikia eta komunitatearekiko eta lurraldearekiko hurbiltasuna aprobetxatzen baditugu.

Hortik ikusita, zenbait **lehentasun** azpimarratuko ditugu:

- Lasaitasun, errespetu eta elkarrizketarako girotu

- Entzun eta ikusi, gure haurrak eta familiak arlo pertsonalean ezagutzen joateko
- Lehendabiziko ideia eta proposamenak bildu, ikasturtean zehar garatzeko (baita baztertuko direnak)
- Taldearen antolaketa eta gelaren funtzionamendua prestatzen hasi

Ildo horri jarraituz, zenbait **idea**:

- Familiekin solas egiten dugularik, gelditu, itxoin eta minutu batzuk eman ikasleei, dauden taldeaz eta gelaz jabetzeko, uda ondoren
- Agurtu eta ikusioa helarazi, guztiondako akitu dira oporrak
- Elkar aurkezteko joko eta dinamikak egin, adibidez: <https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/dinamicas-presentacion-primer-dia-cole/>
- Joko dibertigarriak, lankidetzazkoak, abestiak, ipuinak, e.a. proposatu, ilusioa eta enpatia pizteko
- Erlajatzeko errutina txikiren bat hasi, ad. poliki-poliki arnasa hartu eta bota, arreta osoa bideratu (mindfulness), chi kung-a, yoga, taichi-a...
- Borobilean eseri
- Udan egin duguna kontatu eta marraztu, hormairudia osatzeko eta hitzaldiak emateko edota antzezteko...
- Gelako antolaketarekin hasi: zereginak, arduradunak, egiteko moduak eta biharamunerako, gelarako gustatuko litzazkiekeen arauak ekartzeko proposatu.
- Biharamuneko asanblada adosteko une egokia izan daiteke (info gehiago: <https://escuelarural.net/metodologias-activas-recursos-para/>): orri edo toki bat aukeratu gaiak, ardurak, egun bereziak, egin nahi ditugunak, e.a. biltzeko. Gustoko ez dugun zerbait adierazteko, kritika zehatzak/argudioak azaldu. Asanbladaren mekanika ere jaso daiteke hor, hitz egiteko txandak eta errespetuzko entzute aktiboa azpimarratuz, komunikazio egokia eta adostasuna lortzeko.

Moderatzea, besteek bezala proposamenak egitea eta elkarrizketa eta akordioak erraztea izanen da irakaslearen lana.

- Hamaiketakoa hartu elkarrekin
- Neska-mutilek gidatuko duten bisita antolatu, herria ezaguzeko
- Denbora libre eman marrazteko, irakurtzeko, jostatzeko...
- Bukaeran guztia bildu eta elkar agurtu

Honakoak **saihestu**:

- Diagnostika egiteko proba "objetiboak", ez egin egun hauetan. Ez dute aniztasuna errespetatzen eta haurrak estandarizatu, neurtu eta bereizteko besterik ez dute balio.

Ikasleek arlo edota gaitasun ezberdinetan duten maila ezagutzeko, hobe da denbora eman eta lorpen-gidekin orientatuta, behaketa jarraitua eta zuzena hasi. Gida erdua: <https://escuelarural.net/guias-de-logros-y-secuenciaciones-para-primaria/>

- Ez erabili eskola gradutuko metodologia tradizionalaren unitate didaktiko estandarizaturik, sasi-proiektuak edota bestelako proposamenik.